

“80 egunean” filmak berri onak ematen jarraitzen du. Aste honetan Jon Garaño eta Jose Mari Goenagak zuzendutako filma Festival Internacional de Cine D'Arras-en (Frantzia) eta Mezipatra Queer Film Festival-en (Txekiar Errepublika) saritua izan da.

Arras-eko zinemaldian publikoaren saria eta epaimahaiaren sari berezia jaso ditu. Mezipatra Queer Film Festival-en berriz film oneraren saria jaso du. Ez dira hauek “80 egunean” filmak azken aldian jaso dituen sari bakarrak. Orain dela aste batzuk, Tuterako “Operas Primas” zinemaldian zuzendaritza onenaren saria jaso zuen (9.000 euro).

Zinemaldi hauetan izan da orain artean saritua:

- Film onena Mezipatra Queer Film Festival-en (Txekiar errepublika)
- Publikoaren saria Festival Internacional D'Arras-en (Frantzia)
- Epaimahaiaren aipamen berezia Festival Internacional D'Arras-en (Frantzia)
- "Príncipe de Viana" saria zuzendaritza onenari XI Festival Opera prima de Tudela.
- Globala Saria (Publikoaren saria). Hamburg Queer Film Festivalen.
- “Sebastiane 2010” saria Donostiako Zinemaldian.
- VI San Sebastian Film Commission saria.
- “Urrezko Hirukia 2010” EHGAMen eskutik.

Bestalde, “80 egunean” filmaren nazioarteko ibilbidea ez da amaitu. Besteak beste, Kairo, New York, Washington, Palm Springs, Nantes edo Yakarta ikusi ahal izando da-eta laster.

Txekiar errepublikako Karlovy Vary-ko zinemaldian aurkeztu eta gero, hogeizi zinemaldietan baino gehiagotan ikusi aha izan da filma. Abuztuan Montrealgo zinemaldiko 'Focus on the World' atalean ikusi ahal izan zen eta Donostiako zinemaldiko Zinemira sailean egon ostean, London Film Festival, Chicago Film Festival, Hamburg Film Fest, Ghent Int. Film Festival, Bombay Film Festival, etab... ikusi ahal izan da.

Moriarti eta Irusoin-ek ETBrekin batera ekoiztutako filma da “80 egunean”. 2010ko maiatzean estreinatu zen zinema aretoetan eta munduan zehar hainbat zinema-jaialdietan eman dute.

“80 egunean” bi emakumeren amodiozko istorioa da. Axun, 70 urteko emakumea, alabaren senar ohia zaintzera joango da ospitalera. Bere ezusterako, ondoko gaixoa zaintzen duen emakumea Maite da, nerabezaroko lagun mina, 50 urte luzetan ikusi ez duena. Gaztetan zuten kimika oraindik bizirik dagoela somatuko dute berehala. Axolagabe gozatu eta dibertitzen dira elkarrekin, Axun, Maite lesbiana dela jabetzen den arte. Bere sentimenduak dudan jarriko ditu Axunek: zer jarraitu, burua edo bihotza?